


SAN ANTONIENAK

2024 LEKITTO



ALKATEAREN AGURRA ▶▶▶



Epa, lagunok:

Heldu da ahotsak afinatzeko eta gorputzak astintzeko momentua. Gora San Antolinak!

Nortasun handiko herria da euskaldunona; "Pirinioetako bi aldeetara kantu eta dantza egiten duen herria" zioen filosofo famatuak. Eta Lekeitio ez da inoiz atzean geratu; herri alaia, arduratsua eta eskuzabala. Zer ete ginatete gu auzolan barik? Gure eskerrik beroena, jaiak antolatzen zabiltzaten danori.

Auzolanari eta parte hartzeari lotuta, aipatu nahi dugu aurten txupineroa herritarrek aukeratu dabela. Prozesu polita izan da; zelako parte hartzea! Izen asko proposatu dira, Lekeitio errekonozimendua merezi daben emakume asko dagoen seinale —aurten, emakumeen txanda da—. Eskerrik asko zueri be!

Berrikuntza moduan-edo, jaiak zeozer inklusiboagoak izateko egindako ahalegina aipatu nahi dugu. Barraka berri bat ipiniko da Aniztasun Funtzionalduen pertsonak be ibili ahalko direna. Gainera, Udaletzeko alboko pilaran tarima bat egongo da Gurgildun aulkidunek plazako ekitaldiak ikusi ahal izateko.

Eta kontutan izan jaietan danok gozatu behar dugula. Horregatik badakizue, bizi askatasuna eta beti-beti errespetu albokoa. Baietza ez bada, ezetza da!

Azken gauzatxo bat. Auzokoa bakarrik badago, kolpe besotik eta ekarri geugaz kantatzera. Eta lanak, osasun arazoek edo barrote ilunek eragotzita San Antolinetara etorri ezin dozuena, eduki zabal-zabalik leihoak, geure ahotsik ozenena egingo dogu-eta kantua zuenganaino heltzeko.

Ondo pasa San Antolinak!

JAI BATZORDEAREN AGURRA ▶▶▶

2024ko San Antolinak,

Beste bat! beste bat!

Luis Antero Salinas Cruzalegui, 1874ko abuztuaren 19an jaiotzen 150. urteurrena bete da.

*Anteron txamarrotia
Singerren bibotia
haretzek ei dauko
preso tximiñoia.*



Lekittar guztiok ezagutzen dogu ume-umetatik kanta hau. Momentu onak pasa doguz eta pasako doguz berau kantatzen edo entzuten. Baiña zer nahi dau esan? Ze istorio nahi deusku kontu kantia asma ebanak?... **batetaki!** baña bardin jako. Jaiak disfrutateko diraz, barre sanuak eitteko.

Hauxe da Jai Batzordean gagozanon asmua eta gogua, jentiak ondo pasatia. Hasarrerik barik, eraso barik.

Gure kanta, ohitura eta jaiekin batera euskeria da zaindu eta bultzatu bihar dogun beste altxorretariko bat. Jarraitu daigun euskeraz mintzatzen jaietan, lanean, kalean, astegunetan eta asteburuetan.

Amaitzeko, anekdotatu bat. Gure herrian aspaldi taxi zerbitzua izan eban batek, (*urte askotan falta da herritik bere borondatiaren kontra*), istorio zelege hau kontatzen eban.

Bezero bategaz bidaian doiala Mikel Laboaren "Baga-biga-higa" diskoa ("Lekeitio 2") ipini eban martxan taxiko radiokasetian, handik denpora batera bezeroak esan ei eutsan — txo! nik erderaz be ez dakitx, neure bizitza guztian euskeraz bakarrik ein dot berba, baña kantatzen dagonari ez dotsat aitzuten **tautipe**— ... *olio zopa, kikili salda, urrup edan edo klik, ikimilikiliklik...*

Herri berezia garielako!
Euskera berezia daukagulako!
Jai bereziak daukaguzelakooo!!!

Gora San Pedro!... ez, ez,... parkatu.

Gora San Antolinak!

Gora Lekitto

*joinein
zaitxuodien
mekia
batamaidien
ikia
ekienena
saixuo
ekiots
laixuo
lobientzara
bakaikia
aido
niokio*

Indarkeria matxistari aurre egitea **denon ardura da**, beraz edozein erasoren aurrean aktiboa izan behar da gure jarrera

OKURRIDU BEZ:

- Onarpenik gabeko igurtziak eta musuak
- Komentario edo begirada kosifikatzaileak
- Astuna izatea
- Sexua izateko xantaia egitea
- Bestelako indarkeria matxistaren adierazpenak

HARREMANTZERAKOAN ARGI IZAN:

- Inorekin ligatzen saiatu aurretik, behatu hurbiltzeko egin duzun saiakera gustatzen zaion eta jokaera harkorra den.
- Edozein unetan EZETZ esan daiteke
- Ez zaitez astuna izan!
- Ez pentsa lagunaren arteko adierazpen afektibo batek zurekin 'rolloren' bat esan nahi duenik.
- Norbait gu edo besteren bat molestatzen dagoela ikusten badugu, elkar gaitetzen lagunekin eta esku hartu horrelakorik ez gertatzeko.

ERASO BATEN AURREAN:

- Erasotua sentitzen bazara, eraso da.
- Erantzuteko modu desberdinak daude; ZEUK erabaki.
- Ez zaitez lotsatu, erasotzailea da lotsatu behar dena!
- Jende gehiago egotekotan, laguntza bilatu. Kontaiezu zer gertatzen ari zaizun eta zer egin nahi duzun.
- Mutilak! Ez zaitezte aldamenean geratu, erasoaren konplize izateari utzi egin behar zaio.
- Erasoren bat ikusiz gero jasan duenarengana jo, galdetu zer behar duen eta haren beharrezanetara moldatu. Beti berak nahi duena errespetatu behar da.
- Ez ezazue erasorik justifikatu, ezta alkoholaren edo drogen aitzakia erabiltzen bada ere.

Telefono baliagarriak:

- Larrialdiak (24 ordu): 112
- Telefono bidezko laguntza edozein ordutan: 900 840 111
- Lekeitioko anbulategia: 94 603 58 60
- Udaltzaingoa: 94 684 20 00
- Txosna batzordea

ERASORIK EZ ERANTZUNIK BARIK

LEKEITIOKO UDALEKO PAREKIDETASUN BATZORDEA

Eraso matxistei erantzun! **Eraso matxisten aurrean** **egin beharrekoa**

- Pertsona bat erasotua izaten ari dela iruditzen bazaizu, harengana joan eta laguntzarik behar duen galdetu iezaiozu, zeure kabuz erabakiak hartu aurretik.
- Baietz badio edo norbait barrara badator eraso salatzeraz:
 1. Lehenasunezko kontua da, beraz, egiten ari zarena utzi eta pertsona horri babes guztia eman eta kasu egin.
 2. Beharrezkoa bada, espazio seguru eta lasaia bilatu.
 3. Arreta handiz entzun eraso jasan duenak esateko duena (azalpena, beharrak...)
 4. Erasoa jasan duen pertsonari laguntzea lehenasuna da, hau kontuan izanda, eta posible bada, erasotzailearengana jo.
 5. Laguntza bilatu eta erasotzaileari argi utzi bere jarrera ez dela gehiago onartuko, beharrezkoa bada espaziotik kanporatu.
 6. Erasoa jasan duen pertsonari jai-gunera, etxera edo laguntza zerbitzuren batera lagundu. Pertsonalki posible ez bada norbaitek lagunduko diola ziurtatu.

**Ez badakizu
egoten, geratu
etxean!
Eraso
matxistarik ez!**



PUNTU MOREA

Irailak 1 eta 5, 22:00etatik 02:00etara Udaletxeko eskaileren aurrean.

Abuztuak 31, zapatua

10:00 Plazaren apainketia Garraitz kirol taldearen eskutik

10:00 San Antolin trofeoa Lekeitio FT (kadeteak) – Athletic (infantilak)

12:15 San Antolin trofeoa Lekeitio FT (jubenilak) – Athletic (kadeteak)

18:00 San Antolin XXVIII. Altuera jauziko txapelketa plazan, Tximista taldeak antolatuta

19:00 Jai Alai Udako Master Series zesta punta txapelketa
Santi Brouard pilotalekuan

Ixone eta Romi Markes, 2024ko San Antolinetako txupinerak



IRAILAK 1 DOMEKA

San Antolin BEZPERA BAJADA EGUNA

12:00 Buruhandiak eta **erraldoiak** kalerik kale, Itxaropena txistulariekin

19:15 XXXVII. Kuadrilen Bajadia, Lekitto musika bandak eta Aittitta Makurra txarangak animatuta. Hasiera Sabino Arana 3tik (Telefonikako eraikinaren aurretik). Kuadrilak musika bandaren atzean kokatu beharko dira. Herriko taldeen musika ondo entzun ahal izateko, bozgorailurik ez eramatea eskatzen da.

20:00 Angelusa, hasiera emoteko San Antolinei; **kanpai jotea, txupinazoa** eta **Anteroren bajadia**

Romi eta Ixone Markes, Jai Batzordeko kideak eta urte askotan zehar herriko jaietako ekintzak antolatu eta animatzearen arduradunek botako dute txupinazoa

Albina Stardust & Divina Comedia, plazan bajadien amaiera animatzeko eta gaua girotzeko

22:00-2:00 Puntu Morea, eraso sexisten arre-ta gunea, Udaletxeko eskaileren aurrean

22:30 Suzko zezena plazan

23:00-02:00 Dj Fonoplay Eskolapean

23:30 Garilak 26 erromeria plazan

IRAILAK 2 ASTELEHENA

San Antolin EGUNA
ALKONDARA ZURI EGUNA

09:00 Akordeoi-joleen kalejiria

11:00 XXIII. tiragoma txapelketia limoneroan, Aittitta Txikik antolatuta. Izen emotia: 10:30ean)

11:15 Agintarien prozesioa, Lekeitioko alkate eta zinegotzi jaun-andreak udaletxetik elizaraino joango dira, Lekitto musika bandiak lagunduta

11:30 Meza Nagusia, elizako koruak abestuta

13:00 Lekitto musika bandaren kontzertua plazan (Zuzendaria: Urtzi Iriondo)

18:00 XIV. Txapel Jaurtiketa Uribarren kalean, Aittitta Txiki elkarteak antolatuta. Izen emotia: 17:30etatik 18:00etara

20:00 Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Miren Artetxe eta Xabat Gallettebeitia, Arranegin balkoitik balkoira

22:00 Mariachi Cazahuetes taldea plazan

23:00 Su artifizialak, Valecea pirotekniaren eskutik

Ondoren Suzko zezena

Jarraian Mariachi Cazahuetes taldea plazan



PARKEKO GUNEA

12:00 Biodantza

17:00 Altxorraren bila

17:00 Mural kolektiboa

17:00 Eraikuntza tailerra

20:00 Farolapekoa: TOKI&GAIZKA ETA DEI

PARKEKO txosnaren ordutegia

Goizetan: 12:30/14:00

Arratsaldetan: 17:00/23:00

IRAILAK 3 MARTITZENA

Kamiseta EGUNA

(kuadrilakoa, erreibindikatiboa, e.a...)

10:00 XXVIII. Paella Txapelketa plazan,

Jai Batzordeak antolatuta

11:00 Kuadrilen arteko lasterketak Abadeen

moilan, Garraitz KTak antolatuta

12:30 Itxaropena txistularien kalejira

Udaletxetik hasita eta, ondoren, **kontzertua**

Eskolapean

13:30 Paellen aurkezpena eta **sari banaketa**

plazan

15:00 Herri bazkaria: Paella eguna.

Eguraldi onarekin arbolapean

21:30 Sua taldea plazan

23:30 Esne Beltza taldea plazan



PARKEKO GUNEA

12:00 Bits jai

13:00 Urezko zezena

17:00 Piragua irteera

17:00 Eraikuntza tailerra

19:00 Txokolatada

20:00 Farolapekoa:

GU ETA GITARRAK

KONTZERTUAK PORTUKO TXOSNETAN

HERRI MUGIMENDUAREN EGUNA

“Bete daigun Lekitto gure
aldarrikapenekin” bajatu
banderola, kamixeta eta zapijak

20.00 Elektrotxaranga txosnetatik
hasitxa

00.00 DJ Elepunto



IRAILAK 4 EGUAZTENA

Antzar bezpera

10:00-13:00 Izen-emotea kultur etxeko Azkue aretoan, Antzar jaiari parte hartzeko

16:30 "Zapaterito" Pelota txapelketiaren finalak Zapaterito frontoian, Akarregi esku pelota taldeak antolatuta

Gero Emakumezko afizionatuen binakako plaza libre desafioa, Zapaterito frontoian, Akarregi esku pelota taldeak antolatuta

19:00 Nagusien San Antolin trofeoa
Lekeitio FT "A" - Artibai

21:00 II. San Antolinetako Correfoc-a San Pedro kofradiatik plazara, Lekittoko Deabruak (Lekeitio), Es mals Esperits (Ibiza), Diables Riudoms (Riudoms) eta Kolpez Blai (Astigarraga)-ren eskutik

22:00 XXXII. Play backa plazan, Markesen alabek antolatuta



PARKEKO GUNEA

12:00 Musika tresnak sortu

17:00 Serigrafia tailerra

18:30 Parkeko bandaren pasakallia

19:30 Merienda

20:00 Farolapekoa: GANITA KAMUTS



IRAILAK 5 EGUENA

Antzar EGUNA

10:00 Lekitto musika bandaren kalejira

11:00 Buruhandiak eta **erraldoiak** kalerik kale, Itxaropena txistulariekin

11:30-14:30 Umeen parkea Juan Bautista Eguzkitza enparantzan eta plaza gorrian

11:45 Itxaropena txistularien eta Antzar Batzordearen kalejira kioskoraino

12:00 Zozketa plazan, antzar jaiaren parte hartuko daben txalupei zenbakia emoteko

13:00 Txistularien batzea Eskolapean, Itxaropena txistularien gidaritzapean. Txistua jo nahi daben guztiak etortzera animatzen da

16:00-20:00 Umeen parkea Juan Bautista Eguzkitza enparantzan eta plaza gorrian

16:00 Antzar jaia portuan

Gero Masta-puntakoa

18:30 VI. Caixabank Esku Pilota Mastersa, Santi Brouard frontoian

19:00 DJ Gurru plazan

22:00-2:00 Puntu Morea, eraso sexisten arreta gunea, Udaletxeko eskaileren aurrean

22:00 Trikizio erromeria plazan

01:00 DJ Ibon Insausti plazan





Lekeitioko portua antzar egunean. Argazkilaria: M.G. Garavilla, 1900 (LEKEITIO idatziak eta irudiak II. liburukoa)



ANTZAR EGUNA

1. Jaia arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta 19:00etan amaitu. Ordu horretan, 19:00etan, azkenengo potina pasatuko da, eta ondoren masta-puntakoa.
2. Jaiak iraungo dauan hiru orduetan (16:00etatik 19:00etara) ahalik eta txaluparik gehienak parte hartzeko, honelako neurriak hartuko dira:
 - 2.1. Portuan baliza bi ipiniko dira: bata, itxarrotekoa; eta bestea, urteerakoa. Gainera, beste baliza bat jarriko da Abadien mollako puntaren parean, parte hartzen duten txalupen sarrera seinalatzeko. Urteerako balizaren aurrean antzarrari burua kentzen doan txalupa ipiniko da. Itxarroteko balizan, barriz, burua kentzen doanaren hurrengo txalupa. Urteerako balizan dagon txalupa martxan ipinten danean, itxarroteko balizan dagona be martxan ipiniko da eta urteerako balizan geratu.
 - 2.2. Urteerako balizatik antzarreraino joateko denbora jakina emongo da, minutu bat eta erdi, eta ezin izango da gehiago erabili. Denpora hori balizatik urtetetarako hartuko da.
3. Jaietako batzordeak aparteko ahalegina egingo dau, antzarrak ahalik eta arinen ipinteko sokan.

Antzar jaiari parte hartzeko izena emotea:

1. KULTUR ETXEAN, irailaren 4an, goizeko 10:00etatik 13:00etara emongo da izena.
2. Ordu horreetatik kanpo ez da onartuko koardilarik izena emoteko.
3. Patroi doana "marinero competente" tituloduna eta 18 urtetik gorakoa izango da.
4. Txalupia lekeitiartzat hartzeko, Lekeition enpadronatuta egon behar dira derrigor 8 partaide (6 arraunlari, patroia eta burukentzailea). Horretarako, NANaren (Nortasun Agiri Nazionala) fotokopia ekarriko dabe, txaluparen izena emoterakoan.
5. Izena emotean edozein jarrera sexista, sexual, homofobo edota transfoboren aurrean jarrera aktiboa izango dutelako konpromisoarekin bat egiten duen kuadrilari, potinerako bandera bat eta zapiak banatuko zaizkio.

Zozketia eta pisaketia

1. Zozketia plazan egingo da irailaren 5ean eguerdiko 12:00etan.
2. Burukentzaileak, gehienez be, 75 kilo pisatu eta 18 urtetik gora izan beharko ditu (16 urtetik gorakoek gurasoen agiri SINATU bat aurkeztuta izena emon ahal izango dute).

Sariak

1. Lehenengoa, altzadarik gehien egiten dauanari, antzarrari burua kenduta.
2. Bigarrena, altzadak gehien egin dauanari, antzarrari burua kendu barik.
3. Dotoretasunari saria: horretarako puntuatuko dira txalupa, janzerkia, arraunen margoketia, abiadura, esaldia, e.a...
4. Berdinketa egonez gero, denbora gutxien egin duenak irabaziko dau.
5. Antzarrari burua kentzen dioten harrapatzaile guztiek ohorezko banderaxoa jasoko dute.

Masta-puntakoa

1. Masta-puntan parte hartu nahi dauanak nahikoa dau masta ondoan egotea antzar jaiari amaitzen danerako.
2. Banderia harrapatzen doana tente joango da masta osoan zehar.
3. Ez da onartuko tatarrez edo jezarririta joatea.

Oharrak

1. Ez erabili urunik egun horretan
2. Ez eroan umerik txalupetan.



IRAILAK 6 BARIKUA

Umeen EGUNA

11:00-14:00

Umeen parkea plazan

12:00

Umeen masta-puntakoa abadeen moilan.
Izen emotia 11:00etan

18:30

Jokai euskal mitologian inspiratutako jolas
sortzaileen konpainiaren jolasak Abaroa
jauregian

19:30

"Azken eguzki lorea" umeentzako
ikuskizuna Abaroa jauregia

20:00

**Antzar jaiaren eta nagusien mastapunta-
ren sari banaketia** limoneroan

21:30

Nabil taldea plazan

23:00

ETS taldea plazan



PARKEKO GUNEA

18:00 Jolas librea

**20:00 Farolapekoa:
MAKUSAI**

**KONTZERTUAK
PORTUKO TXOSNETAN**

**"BAT EGINEZ
INDEPENDENTZIARA!"**

20.00 elkartasun argazkia

00.00 HMNDK ETXERA

02.00 DJ Truetox



IRAILAK 7 ZAPATUA

Kuadrila EGUNA "El Rocío" erromeria

11:00

Buruhandiak eta **erraldoiak** kalerik kale
Itxaropena txistulariekin

17:15

VI. Caixabank Esku Pilota Mastersa, Santi
Brouard frontoian

20:00

Kantuzaleak "El Rocío" erromeria jantzita
eskolapean. Zaletxuak elkarteak antolatuta

21:00

Saji taldea plazan

23:00

Arkada Social taldea plazan

01:00

DJ Amataki plazan



PARKEO GUNEA

12:00 Haurrak sukaldari
tailerra

14:00 Umeen herri bazkaria

15:00 Nagusien herri bazkaria

17:00 Plaza dantzen tailerra,
Erdizka lauetan

KONTZERTUAK PORTUKO TXOSNETAN

GAZTE EGUNA

22.00etatik aurrera:

Silitia
Leinup
Malakias



KUADRILEN BAJADIA

1. Jaitsiera Telefonikan hasiko da eta plazan amaitu.
2. Kuadrilak gitxienez, 10 pertsona euki behar dabe.
3. Jai Batzordeak aukeratuko ditu epaileak sariak emoteko
4. Puntuak emoteko, epaileak kontuan hartuko dabez kuadrilaren animazioa, janzkera eta giroa.

SARIAK

Nagusien 1.saria: 300€

Umeen 1.saria: 150€

Sari berezia: 150€

KITTO saria: 200€-ko balea,
Elkarteko dendetan gastatzeko.

5. Egun osoan zehar erakutsitako giroa baloratuko da.
6. Epaileen erabakia ezin izango da aldatu



MUS TXAPELKETA

- 4 Erregeetara.
- 4 Hamarretakora.
- Mus "Relampago"

SARIAK

Lehen saria: Txapela, garaikurra eta izena emoteko diruaren %50a.

2. saria: Garaikurra eta izen emoteko diruaren %25a.

3. saria: Izen emoteko diruaren %15a eta 2 ardo botila.

4. saria: Izen emoteko diruaren %10a eta 2 ardo botila.

KUADRILEN ARTEKO LASTERKETA

Irailak 3, 11:00etan, Abadeen moilan
Izen-ematea: 10:00etatik aurrera

PROBAK:

- Arrelepo Abadeen moilan zehar (2 lagun)
 - igiri tinglaura (1)
 - Pixua eruan korrika Damasonera (1)
 - Txirindolan marina aurrera (1)
 - Saku karrera abadeen moila hasierara (1)
- (6 pertsona taldeko, DBH letik aurrera)
Oharra: Talde bakoitxak bere bizikletako gurgipila ekarri



XXVIII. PAELLA TXAPELKETA

1. Paella txapelketan parte hartzeko (**gutxienez 10 pertsonentzako**), ezinbestekoa izango da **abuztuaren 13tik 27ra bitarte kultur etxean izena ematea, 15:00etatik 21:00etara**. Datak errespetatzea nahita nahiezkoa izango da. Epez kanpo ezin izango da izenik eman. Apuntatzeko orria (Kultur Etxean eskatu edota web orrialdetik jaitisi), taldearen izena, arduradun baten izena, telefonoa, emaila, zenbat aulki (3€ bakoitzeko) eta mahai (6 pertsona bakoitzean eta 11€ bakoitza) behar diren ipini beharko dira. **Izen-ematearekin batera zehaztuko da zenbat paella aurkeztuko dituen kuadrila bakoitzak, paella bakoitzari izen bat jartzeko zaiolarik.**
2. Apuntatzeko orrian jarritako **arduraduna txapelketaren hasieran (08:45ean)**, kioskoan egon beharko da muntaian eta antolakuntzan laguntzeko kuadrilei mahai, aulki eta adreiluak (behar izanez gero) banatzeko, eta epaileei mahaiak ipintzeko. **Desmuntatzea** partehartzaila guztien artean egingo da arratsaldeko **18:00etan**.
3. Ordainketa, derrigorrez dirutan (metalikoan) izena ematen den unean egin beharko da Kultur Etxean.
4. Paella prestatzeko **tresneria (sua, bonbona,...) eta jaki guztiak kuadrila bakoitzak** eraman beharko ditu eta paella plazan bertan egin beharko da.
5. **Plater, edalontzi eta tenedoreak** Lekeitioko Udalak banatuko ditu parte-hartzaileen artean.
6. **Paellen aurkezpena** eguerdiko **13:30etan** izango da.
7. **Sariak 3 izango dira** eta epaimahaia Jai Batzordeak izendatutako 3 epaile osatuko dute. Aurkezpena, gustua eta puntuak baloratuko dira eta epaileen erabakia ezin izango da eztabaidatu.
8. Epai-mahaiak erabakiak hartu ondoren banatuko dira sariak.
9. **Kuadrilla bakoitzak bere tokia** antolatuz eta bukatu ostean **garbi uzteko ardura** hartuko du. Horretarako, Kontzijoan izango dira erratzak eta palak.

PLAY BACK TXAPELKETA

Irailak 4, 22:00etan, plazan

IZEN-EMATEA:

- Abuztuaren 23tik irailaren 3ra, Gau Txori tabernan
- Izena ematean abestia pendrive batean aurkeztu beharko da Gau Txori tabernan
- Abestiaren iraupena gehienez ere 6 minutukoa izango da

ARAUDIA:

- Umeak hasiko dira Playback-a egiten; eta gero, nagusiak
- 14 urtetik beherakoak, hauek barne, umeen kategorian parte hartuko dute, eta hortik gorakoek nagusien kategorian.
- Euskarazko abestiek puntu gehigarriak izango dituzte.
- Antzetzokian taldeko gehienez 12 pertsona egon ahalko dira.
- Epaileak herriko 5 koadrilakoak izango dira. Hauek hartutako erabakiak ezingo dira atzera bota.
- Antolakuntzak sariren bat eman barik utzi dezake.
- Sari berezia antolakuntzak emango du.
- Antolakuntzak ez ditu bereak egiten bertan ager daitezkeen ideia edo intsinuazioak.

SARIAK:

Nagusiak 1. 220€ / 2. 110€ / 3. 70€
Umeak 1. 100€ / 2. 60€ / 3. 40€

GAZTE MASTAPUNTAKOIA

Irailak 6, 12:00etan, Abadeen moilan
Izen-ematea: 10:00etatik aurrera

MAILAK:

Lehen ikurriña: 2014/2013an jaiokoak.

Saria: txapela eta 50€

Bigarren ikurriña 2012/2011an jaiokoak

Saria: txapela eta 75€

Puntako ikurriña: 2010/2009an jaiokoak.

Saria: txapela eta 100€

ARAUDIA:

- Bandera harrapatzen doana tente joango da masta osoan zehar.
- Ez da onartuko tatarrez edo jezarrita joatea.
- Aurretiaz izena emon beharko dau, 11:00etan Abadeen moila.



IRAILAK 8 **DOMEKA**

Antiguako Amaren EGUNA

09:00

Itxaropena txistularien kalejiria

11:30

Meza, umeen eta aittitta-amumen omenez

14:30

Lekeitioko nagusien bazkaria

17:00

IX. mus txapelketia Kai Alde sozietatean. Izen emotia 16:30ean

21:30

Suzko zezena

Ondoren

Anteroren ezkutatzea jaiei agurra emoteko

Gero

Koittadua, Aittitta Makurra txarangiak animatuta

Jarraian

Kalejira, Aittitta Makurra txarangiarekin



PARKEKO GUNEA

12:00 Umeentzako jolasak

17:00 Marmo tailerra, Lekittoko Diabruakin



Naufagoak uhartean

Garraitz edo San Nicolas izenez ezagutzen den uharteak egiten du horren berezi Lekeitio inguruko paisaia. Mareak behera egin ahala, Karraspioko hondartza zabalak bidea irekitzen du bertaraino oinez iritsi ahal izateko. Ez galdu aukera, ezta harea artean gelditutako putzuetan oinak busti behar badituzu ere, bista ikusgarriak izango baitituzu zain. Baina kontutan hartu mareen ordu-tegia! Bat baino gehiago gelditu da preso bertan, Robinson Crusoe naufragoa bezala, mareak berriz gora egin eta urez inguratuta.

Testua: Ander Gartzia Badiola. Argazkia: Kiñuka



SAN ANTOLINAK 2024 AURREKONTUA	
Musika eta kontzertuak	105.971,50 €
Egitarauko ekintzak	34.731,19 €
Antzar eguna	27.531,73 €
Portuaren egokitzapena	23.034,80 €
Azpiegiturak	31.837,88 €
Su artifizialak	8.654,61 €
Guztira	231.761,71 €



Egitaraua

JAI BATZORDEA

Kartel lehiaketaren irabazlea

JOKIN GABIOLA LENIZ

Diseinua eta maketazioa

KIÑUKA

Argazkiak

KIÑUKA eta LEKEITIOKO UDALA

Argitaratzailea

LEKEITIOKO UDALA

Programia publizitatea ipini daben enpresa eta dendei esker argitaratu da.